

1.- Bentzenoa C-ak eta H-ak osatzen dute. Analisi batean egiaztatu da 3g C eta 252 mg H konbinatzen direla. Zehaztu bentzenoaren formula, haren masa molarra 78,05 g/mol dela kontuan hartuta.

(  $C_6H_6$  )

2.- Urre(III) karbonato  $2,25 \cdot 10^{20}$  molekula dauzkan lagin batean, kalkulatu:

a) Zenbat mol dauden.

b) Zenbat gramo

c) Zenbat karbono atomo .

(  $3,7 \cdot 10^{-4}$  mol /  $0,21g$  /  $6,75 \cdot 10^{20}$  atomo<sub>C</sub> )

3.- Bi mol sulfre trioxido ditugu:

a) Zenbat molekula daude?

b) Zenbat mol-atomo sulfre daude?

c) Zenbat gramo oxigeno daude? .

d) Zenbat atomo daude bi mol horietan?

(  $1,2 \cdot 10^{24}$  molekula;  $2$  atmo-mol<sub>S</sub> ;  $96g_O$  ;  $4,8 \cdot 10^{24}$  atomo )

DATUAK:

MASA ATOMIKOAK: C=12; H=1 ; Au: 197 ; S= 32